

Creative Commons irabazi-asmorik ez duen erakundea da. 2002ko abenduan lizentzia publiko batzuk zabaldu zituen, eduki digitalen sortzaileek beren borondatez lanak arau zituzten. Creative Commons lizentziak copyright tradizionalaren ordezkotako aukera dira. Lizentzia hauek babes osoaren (eskubide guztiak erreserbatuta) eta askatasun absolutuaren (eskubiderik gabe) artean daude.

Creative Commons lizentziak [Free Software Foundationen](#) [GPL \(General Public License\)](#) lizentzian oinarrituta daude, baina ez dira softwarearen lizentzia mota bat.

- Creative Commons lizentziak erabat betetzen dute gure legedia eta, aldi berean, nazio ezberdinetan ere bateragarriak dira, hau da, Japoniako materialak Errusian erabil daitezke eta Kanadakoak Euskal Herrian.
- Creative Commons lizentziek egileari segurtasun juridikoa ematen diote, egilea zein eskubide ari den uzten eta lagapena zein mailakoa izan daitekeen erabakitzen du: beste norbaitek bere lanarekin irabazi ekonomikorik ez lortzea erabaki dezake edota beste lan bat sortzeko erreferentzia izan daitekeela.
- Creative Commons lizentziek erabiltzaileari segurtasun juridikoa ematen diote eta, hala, edukien banaketa eta erabilera errazten diote, egileak bai baitaki zein eskubide laga dituen, eta, beraz, materialaren egoera zein den jakin baitezake.
- Creative Commons lizentziak garatzen duen lizentzietako bat "Developing Nations" delakoa da. Honen arabera egilearen eskubideak nazio garatuetan bakarrik kobratzen dira, eta garapen bidean dauden herrialdeei erabilera osoa eskaintzen zaie.






Sei lizentzia mota daude, lau baldintzekin konbinatzen direnak:

1. **Lan Eratorririk Gabe (*Non Derivate Works*):** Artista batek sortutako lanak
2. **Partekatu Berdin (*Share Alike*):** Egilearen materiala erabiltzeko
3. **Ez Komertziala (*Non Commercial*):** Jatorrizko materialak berrabiltzeko

4. Aitortu (**Attribution**):

Lanak modu askean kop

Elementu horiek konbinatuta aipatutako sei lizentziak sortzen dira:

1. Aitortu 
2. Aitortu - Ez komertzial 
3. Aitortu - Ez komertzial  Partekatu Berdin
4. Aitortu – Ez komertzial  Lan Eratorririk Gabe
5. Aitortu - Partekatu Berdin 
6. Aitortu - Lan Eratorririk Gabe 